



ENPRESA-PROIEKTUAK SENDOTZEKO PROGRAMA



1. edizioa - 2021eko iraila-abendua

Zer da BDCC

BDCC (*BASQUE DISTRICT OF CULTURE AND CREATIVITY*) EUSKADIKO KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK (KSI) TREBATU ETA GARATZEKO ETA HORIEI LAGUNTZEKO ESPAZIOA DA, SEKTOREAREN LEHIAKORTASUNA ETA EKONOMIA SENDOTZEKO HELBURUA DUENA

Hori dela eta, BDCCk ekintzailatza-, berrikuntza-, eta hobekuntza-prozesuetan laguntzen die KSIetako enpresa eta profesionalei, lurraldean sektorea indartu eta trinkotzeko

Proiektuak sendotzeko programa

ENPRESA ETA ENPRESA-PROIEKTUAK SENDOTZEKO PROGRAMA EKINTZA-PROGRAMA BAT DA, ENPRESA-PROIEKTU ZEHATZ BAT ARDATZ DUENA ETA EUSKADIKO KSI ENPRESETAKO ZUZENDARI ARDURADUNEI (jabeak eta/edo bazkideak) ZUZENDUTA DAGOENA

140 orduko laguntza-prozesu bat da, eta enpresa bat sendotzeko programa bat garatzeko helburua dauka (nazioartekotzea, digitalizazioa, berrikuntza, negozio-eredu berria edo zerbitzu berriak...), enpresak dituen beharrianen arabera.

Esperientzia pilotu bat da, BDCC testuinguruan sortutakoa, eta 2021ean Innobasquek zuzenduko du.

INFORMAZIO OROKORRA

ANTOLAKUNTZA: *Basque District Of Culture And Creativity* (BDCC)

ZUZENDARITZA: Juan Pastor Bustamante Innova&acción espazioaren zuzendariondokoa

NORENTZAT: Euskadiko KSI enpresetako zuzendari arduradunentzat (jabeak eta/edo bazkideak)

IRAUPENA: 140 ordu (128 trebakuntza-ordu enpresa-proiektua sendotzeko, eta 12 tutoretza pertsonalizatuak enpresa sendotzeko).

ORDUTEGIA: ostiralak 16:00etatik 20:00etara eta larunbatak 10:00etatik 14:00etara

HIZKUNTZA: Gaztelania

LEKU-KOPURUA: 20

PREZIOA: 700 €, BEZa barne (prezio berezia programaren lehen edizioarentzat)

ONARPEN-PROZESUA:

- + 2 urteko lanbide-esperientzia kulturaren/sormenaren sektorean.
- Enpresa-proiektu baterako proposamen bat izatea (adibidez, *Business Model Canvas* tresnaren laguntzarekin).
- Parte-hartzearen helburuak edo motibazioak aurkeztea.
- Curriculumak.
- Beharrezkoa izanez gero, elkarrizketa pertsonal bat egingo da.

Informazioa programako hautagaiak aukeratuko dituen Hautapen Batzordeak gainbegiratuko du

SAIOAK:

- Aurrez aurreko derrigorrezko saioak: 128 ordu (programaren ziurtagiria jasotzeko, gutxienez saioen % 80ra joan beharko da).
 - Tutoretzak: Derrigorrezko 12 ordu
- Tutoretzak eskatu eta horietara joaten ez bada, ezin izango dira berreskuratu*

PROGRAMAREN PLANA

SARRERA

Kultura eta Sormen Industriena (KSI), zalantzarik gabe, sektore estrategikoa da, eta garapen-bidean dago European. Azken urteotan, estatistika ugarik egiaztatu dute sektore horren garrantzia gorabidean dela eta ekonomia garatzen nahiz hiriak berpizten laguntzen duela.

Euskadin, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako ZTBP 2030 - RIS3aren (*Regional Innovation Strategy for Smart Specialization*) esparruan, espezializazio adimenduna sustatzeko lehentasun estrategikoak identifikatu dira, eta horien artean dago **Euskadi Sortzailea** aukera-esparrua.

Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB) egindako sailkapenetik hasita, Euskadiko KSI enpresak osatzen dituzten azpisektoreak eta jarduerak hurrengo modu honetan zehaztu eta multzokatu dira:

Arte eszenikoak
Ikusmen-arteak
Ikus-entzunezko arteak
Edizioa eta baliabide
inprimatuak
Musika
Kultura-ondarea

Kultura: azpisektoreak

Arkitektura
Artisautza
Eduki
digitalak
Diseinua
Gastronomia
Hizkuntzaren
industriak
Moda
Publizitatea eta
Marketina
Bideo-jokoak

Sormena: azpisektoreak

Euskadiko KSI enpresetarako zerbitzu-zorro egoki bat zehazteko, sektorearen erronkak edo beharrak aztertu dira:

- **Zeharkako beharrak:** KSI guztiek partekatzen dituztenak, besteak beste, enpresa-, finantza- eta ekonomia-kudeaketa edo jabetza intelektualaren kudeaketa, berrikuntza, nazioartekotzea, sarbidea laguntzetara, sektorearen agerikotasuna eta sektorearen artikulazioa.
- **Behar zuzenak:** segmentu estrategikoen arteko erronka komunak, besteak beste, garapenerako lankidetzak sortzea ekoizpenean dagoen arriskua murrizteko, markaren ospea indartzea, salmenta-estrategiaren errentagarritasuna optimizatzea, espezializazioa azken merkatuan beste merkatu batzuetara irekitzeko eta lankidetzak beste sektore batzuekin. (*Segmentu estrategikoak: azpisektoreak aldagai estrategikoen arabera multzokatzea da, besteak beste, negozio-modeloaren edo sormenezko edukiaren formatu edo helburuaren arabera*).

Behar horiei erantzuteko, *Basque District Of Culture And Creativity-k* zenbait zerbitzu garatu ditu, besteak beste, **enpresa-proiektuak sendotzeko programa** bat, negozioen esparruko metodologiak eta tresnak erabiltzen dituenak.

Proiektuak sendotzeko programa horren **helburua edizio bakoitzean aukeratuak izandako KSI enpresei eta profesionalei prozesua enpresa sendotzeko programa batekin bukatzen laguntzea da** (nazioartekotzea, digitalizazioa, berrikuntza, negozio-eredu berria edo zerbitzu berriak...), dituzten beharrak kontuan izanda.

HELBURU NAGUSIA:

- **Enpresa sendotzeko proiektu bat sortzea** (nazioartekotzea, digitalizazioa, berrikuntza, negozio-eredu berria edo zerbitzu berriak...), parte hartutako enpresa bakoitzaren beharrak kontuan izanda.

ZER ESKAINTZEN DU:

- Enpresa-munduaren ikuspuntu zabala eskaintzen du, negozio-ereduaren garapen eta hazkundeari arreta berezia eskainiz.
- Aukeratutako pertsonen eskura tresna eta baliabideen *toolkit* bat jartzen du, etengabe aldatu eta erronka berriak dituen merkatu batean negozio-eredua moldatu eta/edo berriz diseinatzeko.
- Babesa eskaintzen die enpresei eta profesionali egoeraren diagnostikoa egiteko eta epe ertain/laburrera dauden beharrak, erronkak eta aukerak identifikatzeko.
- Pertsona parte-hartzaileen eskura espazio bat jartzen du, elkarrekin ikasi eta hausnartu dezaten, baita KSI enpresetako beste profesional batzuekin harremana izateko ere, ideia eta sinergien trukea lortzeko.

ZER LORTUKO DUTE ENPRESEK SENDOTZEKO PROGRAMA SORTU ETA GERO:

- Enpresa sendotzeko proiektuaren sendotasunak eta ahultasunak aztertzea arriskuak murrizte aldera.
- Bide-orri bat zehaztea, aurkeztutako enpresa-proiektuak sendotze-programaren ostean garatu edo hobetzeko.
- Enpresa-hazkundean zuzenean nahastutako negozioaren kudeaketa optimizatzea.
- Negozio-aukerak identifikatzea.
- Negozio-ereduan kultura eta sormen sektorearen ikuspuntu zabala aplikatzea.
- Enpresa sendotzeko proiektua bukatzea.

METODOLOGIA:

Enpresa eta enpresa-proiektua sendotzeko programa trebakuntza/ekintza programa bat da, KSI enpresetako zuzendari arduradunei (jabeak eta/edo bazkideak) zuzenduta dagoena; tutoretza pertsonalizatuak dituen 140 orduko trebakuntza- eta laguntza-prozesu batean parte hartuko dute, eta, prozesua bukatzeko, enpresa sendotzeko proiektu bat sortuko dute (nazioartekotzea, digitalizazioa, berrikuntza, negozio-eredu berria edo zerbitzu berriak...), dituzten beharrak kontuan hartuta.

Programak metodologia eta printzipio didaktiko paregabeak dauzka, **sektorean eskarmentua duten adituek emango dituztenak**; gainera, horiek ezagutza Euskadiko KSI enpresen esparruan zabaltzeko gaitasuna dute. **Parte-hartzaileari** profesionalki hazten lagunduko zaio, aditu profesionalen aholkularitzaren eta tutoretza pertsonalizatuen bidez, eta, bukatzeko, enpresa sendotzeko proiektu bat garatuko da, mintegiak egingo dira profesional bikainekin, elkarrekin sortuko dute, *desing thinking* delakoa egingo da, eta, batez ere, lankidetzaren eta inplikazioa ezarriko dira kontaktu-sare batekin.


Trebakuntza- eta laguntza-prozesuak **tutoretza pertsonalizatuak** dauzka, baita proiektuari jarraipena egiteko tutoretzak ere. Horietan:

- o Parte hartutako pertsona/enpresa bakoitzaren egoera aztertzen da, baita bere enpresa-proiektuaren lerro estrategikoak ere.
- o Jarraipena egiten da, enpresa bakoitzari sendotze-prozesuan aurrera egiteko aukera emango diona, taldekako saioetan lortutako trebakuntzari esker.
- o Bide-orri bat zehaztuko da, enpresa parte-hartzaile bakoitzak programa bukatu eta gero jarraituko duena.

Halaber, programak **saio telematikoak** dauzka, **OSTEGUNA BDCC** deitzen direnak. OSTEGUNA BDCC jardunaldiek goiz/arratsalde bateko iraupena dute, sektoreko enpresa guztientzat irekita daude eta lehenetsitako gai zehatzak jorratzen dituzte (merkatuaren hazkundera, jabetza intelektuala, lana sarean...). Trebakuntza-jardunaldiak dira; adituak izateaz gain, benetako inplementazio-kasuak azalduko dira. Gainera, jardunaldi horien helburua KSiko askotariko sektoreetako enpresen arteko *networkinga* da.



Online edukia: BDCCak sortutako tresnei buruzko materialak, sormen-lanaren metodologiak eta *design thinking*. Online edukia tutoretzekin osatzen da; izan daitezkeen zalantzak argitu eta parte-hartzaileek eduki ditzaketan galderei erantzun dizkiete.



Eskola teoriko-praktikoak: online edo aurrez aurre; hurbilketa teoriko-praktikoa egingo da jorratuko diren gaietara.

PROGRAMAREN EDUKIAK:

MODULUA	EDUKIA
Negozio-eredua	Zer da negozio-eredu bat? Negozioak diseinatzeko metodologiak ezagutu eta praktikatzea: Agile Start Up, Business Model Canvas, zuhaitz estrategikoa.
Zerbitzuen diseinua	Kontzeptua. Zerbitzuen diseinuaren praktikaren sarrera. Tailer praktikoa. Aplikazioa eta berrikuntzaren garapenean duen papera
Zuzendaritza Estrategikoa sormenaren sektorearentzat	Sormenerako talentua identifikatzea. Sormenaren sektoreko talentua eta enpresak kudeatzea. Nortasun/Kultura korporatiboa.
Sormena eta berrikuntza	Sormenezko lanaren metodologiak. <i>Design Thinking</i> . Berrikuntzan aplikatutako sormena. Sormen irekia, erabiltzaileek zuzendutako berrikuntza. Elkar-sorkuntza
Merkatuaren hazkuntza eta nazioartekotzea	Merkatuak bilatu eta aukeratzea. Bazkideak eta bitartekariak. Kanpoan egindako operazioen fiskalitatea. Komunikazio- eta posizionamendu-politika
Finantzak eta inbertsioa	Balantze hirukoitza: ekonomikoa, soziala eta ingurumenarena, negozioak eta zerbitzuak diseinatzean. Finantzak eta inbertsioa.

MODULUA	EDUKIA
Marketin	Negozio-ideiei zuzendutako marketina. Marka hazteko bide moduan. Online marketina eta Social Business: ingurune digitala nola erabili posizionamendua indartu eta beste merkatu batzuetara zabaltzeko. Aurkezpen eraginkorrak.
Joerak	Joeren ikerketa. Joeren analisia. Etorkizuna eta foresight estrategikoa
Eraldatze digitala	Aldaketa teknologikoak eta aktore berriak. Ekosistema digitalak. Laneko estrategia bizkor berriak. Automatizazioa eta datuen analisia. Estrategiak eraldaketa digitalarentzat.
Ekonomia Zirkularra eta Ekologikoa	Ekonomia Zirkularra. Jasangarritasuna eta ekologia. Eragin positiboa. Kulturaren eraldaketa eta gardentasuna.
Lidergoa, Negoziazioa eta Komunikazio Eraginkorra	Oratoria, negoziazioa eta lidergo-motak. Arazoen ebazpena. Ekintza komertziala eta negoziazioa

3 OSTEKUN BDCC SAIO (parte-hartzaileak derrigorrez joan behar dira):

Euskadiko KSIetako enpresa eta profesional guztiei zuzendutako 3 jardunaldi dira; programan parte hartzen duten pertsonak derrigorrez joan beharko dira. Jardunaldi horietan sektoreak zehaztutako beharrek lotutako gai zehatzei helduko zaie, lurralde, nazio zein nazioarte mailako askotariko adituen esperientzia praktikoaren eta ezagutzaren bidez. Lehendabiziko 3 OSTEKUN BDCC horien edukiak 3 gairen inguruan zehaztu dira:

- KSiko euskal enpresen esperientziak merkatuaren hazkundean
- Jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen kudeaketa
- Lana SAREAN

Programaren zuzendaria



ZUZENDARIA - JUAN PASTOR BUSTAMANTE

Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna (Madrilgo Complutense Unibertsitatea). Juan sormen-irakaslea da Antolakuntza Industrialeko Eskolan eta ohorezko irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan; bertan, Sormen Aplikatuko adituaren titulua dauka.

Gaur egun, Valentziako Erkidegoko Fundazio Politeknikoko berrikuntza- eta sormen-espazioa den Inno&acción espazioaren zuzendariondokoa da.

20 urte baino gehiagoko esperientzia dauka sormenean, berrikuntzan eta sormenaren sektorean. Bere ibilbidean zehar, zuzendaritzan postuak izan ditu enpresa pribatuan, administrazio publikoan eta hirugarren sektorean.

Gainera, Lankidetzaren Espainiako Agentziarentzat eta Banco Interamericano de Desarrollo (BID) erakundearentzat lan egin du, Latinoamerikan Sormenezko Ekonomia garatzeko prestakuntza, diagnostiko eta estrategiarekin lotutako gaitan.

Gaztelaniaz egindako Sormen-industrian aditutzat jo dute, "los 100 de COTEC" sarearen barruan.

KLAUSTROA



Negozio-eredua

LANDER BALZA




Diseinu estrategikoa / Zerbitzuen diseinua

Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzan ikasketak eta Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoan masterra dauzka. Mondragon Unibertsitatea.

Conexiones improbables-eko kidea da, kultura- eta sormen-ekosistemen mapaketa, interpretazio eta analisirako Kultursistema tresna koordinatzearen arduraduna. Sektore eta lurralde ezberdinetako agenteei tailerrak eskaintzea, metodologia horren bitartez beren kultura- eta sormen-proiektuak ezagutarazten, indartzen eta berriz zehazten laguntzeko.

Industria Diseinuko ingeniari-tza-graduan Sormena irakasgaia irakatsi eta Mondragon Unibertsitateko Industria Diseinuko ingeniari-tza-graduan Sormena irakasgaia irakatsi ditu.

Diseinu-graduaren bukaerako lanaren tutorea eta *Service Design and Common Spaces Workshop* - lan-tailerren zikloa Nafarroako Unibertsitateko Diseinu-graduako ikasleekin.



Negozio-eredua

JULEN ITURBE-
ORMAETXE ZAMARRIPA



Artisau-aholkularia

Enpresa Zientzietan doktorea da, Kudeaketa Aurreratuko programan, eta Mondragon Unibertsitateko Ekonomia Sozial eta Enpresa Kooperatiboan masterra dauka. Psikologian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean.

Gaur egun, eta 2003. urtetik, aholkularia da bere Consultoría Artesana en Red enpresaren bidez, eta #REDCA Red de Consultoría Artesana kolektiboa osatzen duten profesionalen talde batekin kolaboratzen du.

Gainera, data horretatik irakaslea eta ikertzailea da Enpresagintzan, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatean, eta bertako MIK ikerketa-zentroan. Irakasle bezala proiektuen tutore lanak egiten ditu LEINNen (Ekintzailatza eta Berrikuntza Gradua) eta Marketin Digitaleko masterrean. Gainera, Business *Data Analytics* graduako irakasle-taldeko kidea da; "Etika eta Datuen" arduraduna da. Halaber, eskolak ematen ditu askotariko graduondokoetan.

KLAUSTROA



Zerbitzuen diseinua

EIDER ALDAPE
MARTIN



Diseinu estrategikoa eta zerbitzuen diseinua
Marakan

Diseinu Industrialean graduatua (Mondragon Unibertsitatea) eta Diseinu industrialeko teoriak eta metodoak, Milango Politeknikoaren eskutik. Gizarte Berrikuntzako eta Jasangarritasuneko graduondoko bat du Unibertsitat Oberta de Catalunya (UOC), eta Mondragon Unibertsitatearen Zerbitzu Aurreratuen Disentsioan aditu den ikastaro bat.

2014an, MARAKA kofundatu zuen, eta bertatik jarraitzen du garatzen Diseinu estrategikoko, Zerbitzuen Diseinuko eta Partaidetza Diseinuko proiektuak. Gaur egun, irakasle laguntzaile gisa jarraitzen du Deustuko Unibertsitatean, eta Disoluzioa eta Gizarte Berrikuntza irakasgaiak ematen ditu.

Mondragon Unibertsitateko Diseinu Berrikuntza Zentroan zerbitzu-diseinuko irakasle eta ikertzaile espezializatua izan da, eta esperientzia handia du hainbat arlotan proiektuak garatzen, eragile pribatu zein publikoekin lan eginez.



Zuzendaritza Estrategikoa
sormenaren sektorearentzat

ROBERTO GÓMEZ DE
LA IGLESIA



Ekonomia Sortzailean aditua, aholkularia,
kudeatzailea eta kultura bitartekaria

Ekonomia Zientzietan lizentziaduna, Eskualde Ekonomia eta Hiri Ekonomia espezialitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta masterra Enpresen Zuzendaritzan Madrilgo Unibertsitate Autonomoan + Mondragon Korporazioko Otolara Zentroan.

Cc2+i, kultura, sormena eta berrikuntza / Conexiones improbables-eko zuzendaria da; 2018an, Europar Batasunak bere jardunbidea egokitzen jo zuen, kultura- eta sormen-sektoreetatik ekintzailetza eta berrikuntza sustatzeko egindako lanari dagokionez (MMAren txostena). 2014ko NICE (*Network of Innovations in Culture and Creativity in Europe*) saria. 2020an, Innobasquek Berrikuntzan Lider izendatu zuen. Kultursistemaren sortzaileetako bat da, baita bere metodologia eta garapenaren zuzendaria ere.

Irakaslea da Madrilgo Complutense Unibertsitateko (ICCMU), Santiagoko Compostelako Unibertsitateko, Kordobako Unibertsitateko (Argentina) eta Piurako Unibertsitateko (Peru) graduondokoetako.



Sormena eta
berrikuntza

MIREN LAUZIRIKA
JAUREGI



Sormen-aholkularia *Art for Life!* aholkularitzan
EmakumeEkin-en presidentea

Arte Ederretan lizentziaduna, Ikus-entzunezkoa, artearen didaktika, arte garaikidea, EHU.

Sormenean espezializatutako *Art for Life* aholkularitzaren sortzailea da; enpresei sendotzen eta aurrera egiten laguntzen die metodologia berritzaileen bidez. Aholkularitza-mota horrek arazo zailenei heltzen laguntzen die erakundeei, arrazoia eta intuizioa erabiltuta erabakiak hartzea errazten duelako. Eboluzionatzeko ikuspuntua aldatzea da.

Prestatzailea izan da ArtS-Project.Eu Europako Proiektuan, arte eszenikoetako profesionalentzako ekintzailetza-gaitasunetan; irakaslea da EHUko UIKeko "Erakundeetan aldaketak inplementatzeko metodologiak: konfiantza berreskuratzen eta elkar-sorkuntza sustatzen" prestakuntza-programan. Topaketak sortu ditu kultura eta sormenaren arloetan: networkinga Karraskanentzako jardunaldiak. Gainera, sektoreen arteko ekitaldiak diseinatu eta zuzendu ditu, Wanted 10 Urte, esaterako.

KLAUSTROA



Merkatuaren hazkuntza eta nazioartekotzea

ITZIAR RUBIO
BARRERA



Operazioen gerentea *Fair Saturday Foundation-en*

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziaduna espezialitate bikoitzarekin (Marketina eta Giza Baliabideak), eta Zuzendarien Aurrerabideko masterduna Deustuko Unibertsitatean eta Nazioarteko Lankidetzaz Ez Zentralizatua: Agenda Globalaren Azterketa eta Kudeaketa Nazio Batuen Sistemaren Esparruan masterduna EHUn.

Itziarren helburua herritarren eskubide kulturalak bermatzea da. Horretarako, gure sormen kolektiboa eta parte-hartze soziala suspertu eta kulturak giza garapen jasangarria lortzeko funtsezko tresna izanik duen garrantzia azpimarratzen du.



Merkatuaren hazkuntza eta nazioartekotzea

JESUS ALBIZU
SORIANO



Zuzendari nagusia - AVU S.L. - FAI Formación

Ekonomia Zientzietan lizentziaduna, 20 urte baino gehiagoko esperientzia dauka Espainian eta zenbait herrialdetan, bereziki, Latinoamerikan eta Europan, kanpoaldean promozioa egiten duten instituzio eta organismoentzat prestatutako metodologiak eta laguntza-planak garatzen eta diseinatzen.

Albizu Vidal y Uría S.L. enpresako bazkide sortzailea da, baita nazioartekotzerako metodologiaren diseinuan aholkulari espezializatua eta oihartzun publiko handiko programen, besteak beste, PIPE, GTPs, SAFCO Sistema (Partzuergoak Sortzeko Lagundurikoa Sistema), DICEX eta SIAP programen, diseinatzailea ere.

20 urte baino gehiago eman ditu jarduera industrialeko Espainiako enpresa batzuetako zuzendaritzan, eta, ondoren, nazioartekotze gaietako aholkularia izan da entitate publikoetan, besteak beste, ICEX eta Merkataritza-ganberaren Kontseilu Gorenean, eta autonomia-erkidegoetako zenbait gobernutan.

Albizu, Vidal, Uría y Asociados, S.L. (A.V.U.), REDBUS, S.L. eta CONACEN, S.A enpresetako zuzendari nagusia.



Merkatuaren hazkuntza eta nazioartekotzea

ANTONIO MARTÍNEZ
ZAMORANO



Lehiakortasuneko eta Berrikuntzako aholkulari seniorra IDOMen

MBA (IESIDE, Vigoko Unib.), Maîtrise en Langues Étrangères Appliquées (Université d'Aix-Marseille, Frantzia) eta Lizentziatura/B.A. (Hons) Itzulpen gintza eta Interpretazioan/Applied Languages (Granadako Unib. /Liverpool John Moores University, Erresuma Batua). Project Management-en (UTN-Buenos Aires) aditua eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioaren zinpeko itzultzaile-interpretea.

Nazioarteko estrategiaren eta negozio-garapenaren arloetan garatu du bere ibilbide profesionala, Shanghaiko (Txina) EXTENDA – “Andalucía Exportación e Inversión Extranjera” bulegoko zuzendari gisa eta IDOMeko Lehiakortasun eta Berrikuntzako aholkulari gisa 2017tik. Esparru horretan, Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko (Txile, Mexiko, Japonia, Peru, etab.) kultura- eta sormen-ekosistemen plangintza eta estrategiarekin, nazioartekotzearekin eta dinamizazioarekin lotutako proiektuak koordinatu ditu.

2015tik gaur arte, ISTRAD - Hizkuntza Ikasketen eta Itzulpen gintzaren Goi Institutuarekin lankidetzan dihardu, graduondoko programetan nazioarteko estrategia- eta marketin-moduluen irakaskuntzan.

KLAUSTROA



Finantzak eta
inbertsioa

IÑIGO IRIZAR
ARCELUS




BlackBinder enpresako administrazio-
kontseiluko kidea

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, eta MBA Enpresen Zuzendaritzan eta Ekonomian IESEn.

Gaur egun, BlackBinder enpresako administrazio-
kontseiluko kidea da. Iraganean, ardurak izan ditu finantzen eta negozioaren garapenaren sailetan.

Halaber, Merkataritza-zuzendaritzako aholkulari gisa lan egiten du Comercial Sautá, S. L. (minimil) enpresarekin. Minimil duela 50 urte baino gehiago sortu zuen Contxu Uzkudun diseinatzaile ospetsuak.



Marketina

ALEX OCHOA DE
ASPURU



Klap enpresaren sortzailea eta bertako
marketin-estrategikoaren arduraduna.

Arte Ederretan lizentziaduna, diseinu espezialitatean, eta Diseinura Aplikaturako Teknologia Berrietan masterduna, EHU.

Gaur egun, marketin-zuzendaria da Sareteknikan (Mondragon taldea) outsourcing formatuan. Gainera, marketin, branding, negozio-ereduen berrikuntza eta enpresa-lehiakortasuneko aholkularia da. Besteak beste, Klap-en enpresa txiki eta ertainen eta sortu berrien marketin-aholkularia da, eta produktu berriak sustatzen laguntzen die.

Enpresa berrientzako marketin-aholkularia, besteak beste, Deustuko Unibertsitatean, Basauri-Etxebarriko Behargintzan, DEMAn edo Amorebieta-Etxanoko Udalean. Marketin eta bezeroekin lotutako gaien aholkularia berrikuntzaren esparruko enpresetan, Tecnalian eta Aztin, esaterako.



Marketina

JUANJO BRIZUELA



Branding & Komunikazio & Berrikuntzako
artisau-aholkularia EQUILIQUn.

Publizitatean lizentziaduna (EHU) izateaz gain, Markaren Zuzendaritza Estrategikoan graduondokoa (ESADE Business School) eta Enpresa Txiki eta Ertainen Administrazio eta Zuzendaritzan graduondokoa (Mondragon Unibertsitatea) dauzka.

Irakasle gonbidatua MBA unibertsitateko masterrean eta Erakunde Nazioartekotzeko unibertsitateko masterrean (Mondragon Unibertsitatea), Marketin Digitalean Aditua ikastaroan (Euskadi Innova), ikasketa-programa nazionalan (Antolakuntza Industrialeko Eskolan) eta Ekintzaileentzako XPLOER Programa Nazionalan (Banco Santander).

Bere ibilbide profesionala hasieratik markari, publizitateari eta komunikazioari lotuta egon da. Denborak aurrera egin ahala, branding- eta komunikazio-estrategien definizio eta garapenari begira eboluzionatu du, eta epe ertain-luzean askoz gehiago pentsatu du. Hala ere, aldi berean, marka bakoitza epe laburrerako akzioekin garatzen ahalegintzen da.

KLAUSTROA



Joerak

JOSUNE RAZKIN



Zuzendari teknikoa Mercatec enpresan

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, eta Soziologian eta Filosofian lizentziaduna UNEDen.

MERCATEC, investigación estratégica S.L. enpresako bazkide sortzailea da. Bertan, 1999. urtetik, sektore eta erakunde guztietan aplikatutako soziologia-ikerketako 200 proiektu baino gehiago burutu ditu; merkatuari beren balio-proposamena egitean erabakiak hartzen laguntzen diete.

Gizarte-eraldaketarako IMPACT HUB DONOSTIA kooperatibaren bazkide sortzailea eta presidentea da.

Irakaslea izan da Mondragon Unibertsitateko askotariko prestakuntza-programatan, Enpresagintzaren MBA programan eta LEINN Ekintzailatza eta Berrikuntza graduan, esaterako.



Eraldaketa digitala

RAMÓN PUCHADES



Chief Innovation Officer (CINO) MONOBO

Gaur egun, MONOBOren Chief Innovation Officer (Cino) da, eta ibilbide luzea egin du 1998tik startup-etan lan egiten, Interneteko jatorrizko enpresen edo enpresa handien proiektu digitaletan lan egiten.

Ibilbide digital luzea eta esperientzia sendoa izan ditu berrikuntzan, online estrategian, eraldaketa digitalean, komunikazioan eta ekipoen eta proiektuen kudeaketan. Hainbat enpresatan programatzaile eta analista gisa esperientzia izan ondoren, 1998an merkataritza elektronikoaren esparruan hasi zen lan egiten (Baquía, Barrabés Biz edo Unidad Editorial enpresetan), Prisa Taldeko Teknologia Zuzendaria izan arte. *Talents United* edo Metrópolis Comunicación bezalako enpresetako aholkularia da.

Hainbat negozio-eskolatako irakasle eta aholkulari gisa egiten du lan.



Ekonomia Zirkularra eta Ekologikoa

RICARDO ANTÓN TROYAS



DNA kolaboratiboa sustatzea

Arte Ederretan lizentziaduna da, eta Marketineko masterra dauka (EHU).

DNA kolaboratiboa sustatzen du, besteak beste, aholkularitza estrategikoan eta berrikuntza-prozesuen diseinuan lan eginda.

ColaBoraBora gizarte-ekimeneko kooperatibaren kidea da. Bertan, berrikuntza-sozial eta -estrategikoari eta erakundeen berrikuntzari zuzendutako elkarlaneko inguruneak eta prozesuak diseinatzen eta errazten dituzte; ZER guztiak berriz definitu eta NOLA guztiak eraldatzen dituzte.

REAS Euskaditik Ekonomia Sozial eta Solidarioa zabaltzen laguntzen du.

KLAUSTROA



Lidergoa, Negoiazioa eta
Komunikazio Eraginkorra

MAITENA SALINAS



Aktorea, mentor-coach eta kazetaria, giza eskubideetan aditua

Komunikazio - Ikus-entzunezko Komunikazio Zientzietan lizentziaduna da (UPSA) eta *Mentoring eta Coaching* (UNIR) eta Lidergo Inkusiboa (Karlos III.a Unibertsitatea) masterrak dauzka.

Gaur egun, Komunikazio, Osasunaren Kultura, Lidergo Inkusibo eta taldeen optimizazioko MENTOR-COACH da EMCC Spain - *European Mentoring and Coaching Council-en*. Gainera, irratiko esataria da Naiz Irratiko Bigarren Kafea saioan. Bestalde, giza eskubideak ikertzen dituen kazetaria da ARGITUZen.



Lidergoa, Negoiazioa eta
Komunikazio Eraginkorra

AZUCENA VEGA
AMUCHÁSTEGUI



Enpresa eta zuzendaritzarekin lotutako entrenamendua 2002. urtetik

Komunikazio Zientzietan lizentziaduna da (EHU), eta RTVEN lan egin zuen.

Lider eta enpresa-taldeen senior entrenatzailea, eskarmentu eta prestakuntza internacional zabala duena. Aditua zuzendarien aurrerabidean. Coachingaren aitzindaria Euskadin (2002).

Erakundeen aldaketak errazten ditu.

Kolaboratzaile independentea hurrengo erakundeetan: Euskal Herriko Unibertsitatea, Basque Culinary Center, enpresa-garapenerako Centro Ibercaja-n, Gipuzkoako Enpresen Elkartean eta Berrikuntzaren Euskal Agentzian.



Lidergoa, Negoiazioa eta
Komunikazio Eraginkorra

BRIGITTE SAUVAGE



Diseinutik Berrikuntzara bideratutako diseinatzaile independentea. Diseinu Estrategikoa eta Kokreazioa

First Class B.A. Honours, produktuen eta altzarien diseinuaren bereizgarriarekin, *Kingston Universityren* eskutik.

Fundatzaileetako bat, diseinuko zuzendarikidea eta nazioarteko *DNA Design* proiektuen arduraduna (1990_2018). Marka nazionalek eta nazioartekoek merkaturatutako 400 produktu baino gehiagoren diseinuan parte hartu du. Gaur egun, diseinu estrategikoko eta Kodiseinuaren eta ekonomia zirkularraren hibridazioa.

Euskal Herriko Unibertsitateko Marketin eta Merkataritza Zuzendaritzako Masterreko eta Deustuko Unibertsitateko Diseinu Estrategikoko Masterreko irakasle laguntzailea.

PROGRAMAN PARTE HARTZEKO MODUA

BURUAN ENPRESA-PROIEKTU BAT BADUZU ETA PROGRAMA HONETAN PARTE HARTU
NAHI BADUZU, IZENA EMAN EZAZU AURRETIAZKO HAUTAKETA-PROZESUAN!

Gogora ezazu lehen edizio honetako programan 20 enpresa-proiektu aukeratuko direla.

Erabakia hartu baduzu, inprimakia bete ezazu uztailaren 29a baino lehen:

PARTE HARTZEKO FORMULARIOA

Zalantzarik izanez gero, gurekin harremanetan jarri: info@basquedcc.eus



BDCC

**BASQUE
DISTRICT OF
CULTURE AND
CREATIVITY**